

A photograph of a person's hand holding a black smartphone over a dark wooden table. In the background, a silver laptop is open, and a tablet lies flat on the table. The tablet screen displays an article titled "How to start a Cafe Business?" with a picture of a coffee cup and some text. A person's arm is visible in the upper right corner, resting near the laptop. A white coffee cup and a sugar dispenser are also on the table.

Kalitatezko Praktiken Eskuliburua



learn to work

Supporting Apprenticeships between
Professional Higher Education and
Small and Medium Enterprises

Fitxa Teknikoa

Editoreak: Anthony F. Camilleri, Sandra Feliciano

Egileak: Anthony F. Camilleri, Ondřej Chrást, Dugald Craig, Heidi Esca-Scheuringer, Sandra Feliciano, Nicole Guthan, Marko Grošič, Michal Karpišek, Alicia Leonor Sauli Miklavčič, Armando Pires, Danutė Rasimavičienė, Branko Savič,

Diseinua: Tara Drev

Argitaratzailea: Knowledge Innovation Centre (Malta) Ltd.

Argitalpen-data: Azaroa

ISBN: 978-99957-79-00-9

Copyright: Consorcio SAPS

Argitaraldia: Lehen argitaraldia (Euskara)

SAPSekoa kideak

European Association of Institutions of Higher Education
Knowledge Innovation Centre
Association of Slovene Vocational Colleges
Czech Association of Schools of Professional Higher Education
Assodiut
Portuguese Polytechnics Coordinating Council
West of Scotland Colleges Partnership
Conference of Academies for Applied Studies in Serbia
Rectors' Conference of Lithuanian University Colleges
Association of Austrian Universities of Applied Sciences

Belgium
Malta
Slovenia
Czechia
France
Portugal
Scotland
Serbia
Lithuania
Austria

Idazlan honek Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia du. Lizentziaren testu osoa irakurtzeko, joan ondorengo estekara: <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>

Argitalpen hau Europar Batasuneko Erasmus+ Programak babesten du. Europako Batzordeak argitalpen honi ematen dio laguntzak ez du esan nahi haren edukiak babesten dituenik: beren egileen ikuspegia bakarrik islatzen dute, eta Batzordea ezin da hartu hemen bildutako informazioaz egiten den edozein erabileraren erantzulezat.



Sarrera

Mundu osoko nazioarteko korporazioek ikuspegi argia dute praktiketako ikasleek erakundeari ematen dioten balioaz, eta etorkizuneko lan-indartzat hartzen dituzte. Goi-mailako lanbide-heziketako berariazko institutuekin (GLHBlekin) lankidetzan aritzea lagungarria da dirua, baliabideak eta denbora aurrezteko, ideia berriak integratzen eta berrikuntzen garapenean lagunduz. Enpresa handiek trebakuntza-institutuekin lankidetzan aritzeko ardura duten barne-komiteak edo sailak sortzen inbertitzen dute, alegia, praktiketako programak antolatu eta ezartzen dituzte beren inguruneetan.

Nazioarteko korporazioen (kasu gehienetan) eta GLHBlen arteko lankidetzak frogatua du onuragarria izan dela denentzat. Konpainiek arlo akademikoko ezagutza berriena eskuratzen dute; GLHBlek, berriz, industriako esperientzia berriena; gainera, laguntza eta aitortza jasotzen dute. Ikasleek, bestalde, beren ezagutza praktikan jartzeko aukera dute eta, aldi berean, lan-munduan eskatzen diren gaitasunak trebatu eta lantzen dituzte. Denek irabazteko tratua da.

Izan daiteke baliagarria ere enpresa txiki eta ertainentzat, ETEentzat?

Horrek ez du erantzun errazik. Gure ustez, bai, beharrezko tresnak baldin baditugu.

Europako ETEek ez dituzte izaten egiturak irismenean praktiketako ikasleak hartzeko, eta balio-proposamena ez da beti argi geratzen ETEentzat. Bestalde, GLHBlek ez daude beti hornituta ikasleei praktika-aldiak eskaini eta, eskala handian, ETE kopuru handi batekin kudeatzeko.

Europako Batzordearen babesaz duela urtebete abiatutako “Goi-mailako Lanbide Heziketaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen arteko Praktiken Babesa (SAPS)” proiektuaren helburu nagusiak ondorengoak ziren: Goi-mailako Lanbide Heziketako Institutuetako ikasleak hartzeari buruz ETEek duten iritzia hobetzea, baita GLHBlen eta ETEen arteko lankidetzari trabak kentzea ere.

Austria, Txekiar Errepublika, Frantzia, Lituania, Malta, Portugal, Serbia, Eslovenia eta Erresuma Batua 9 herrialdeetako adituek, Belgikako egoitza duen EURASHE, Goi-mailako Hezkuntzarako Erakundearen Europako Elkarteko lantaldeak zuzenduta, ETEek eta GLHBlek praktiken arloan lankidetzarantz lehen pausoak emateko tresna bat garatzeari heldu zioten, beren herrialdeetan funtzionatzen duten ETEetako ordezkariekin eta trebakuntza-zentro desberdinetako ikasleekin lankidetzan estuan. Horretarako, ikuspegi sistematiko, jasangarri bat baliatu zuten, esperientziaren kalitatea eta inplikaturako alde guztien abantaila bermatuko zuena.

Helburu horri lotuz, estatu bakoitzean tailer sorta bat eta kideen arteko eztabaida teknikoko topaketa batzuk egin ziren eta, bertan, herrialde kideetako alde interesatuen iritziak hartu ziren kontuan, baita adostasun batera heldu ere. Bada, ondoren, taldeak Kalitatezko Praktiken Eskuliburuua ondu zuen. Eskuliburuaren bidez, praktiken kalitatea eta guztiontzako lankidetzan onuragarria bermatzen da; bestalde, kudeaketa-tresna praktikoa eta erabilerraza da, hala GLHBlentzat nola ETEentzat.

Aplikazio Eremua

Praktikak mundu osoan existitzen den trebakuntza bitartekoa dira, eta herrialde batzuek askotariko motakoak dituzte, baina ondorengoak dira ohikoenak:


1

Ikastetxeen bitartez, ikasketekin konbinatuta eskaintzen diren praktikak, batzuetan Curriculumeko Praktikak izenez ere ezagutuak. Horiek ikasketa-programan egin ohi dira, eta erantzukizuna ikastetxearen eta praktika-aldia ematen duen enpresa kidearen artean banantzen dute.

Enpresek zuzenean eskaintako praktikak, eta ez hezkuntza-erakundeekin lankidetzan; horiei praktika profesionalak deitzen zaie. Horrelakoak ikasketa-programa amaitutakoan edo edozein unetan egiten dira, praktiketako pertsonaren ikasketekin erlaziorik izan gabe. Praktika horien ardura eskaintzen dituzten enpresena da bakarrik.

2

Bakarrik lehendabiziko praktika mota dagokio Kalitatezko Praktiken Eskuliburuari: GLHBI eta ETEen irizpide eta betekizunei erreparatzen die, elkarren arteko harremanei, eta haiek praktiketako ikasleekin dutenari.



1 Irudia - Ptaktika motak

Kalitatezko Praktiken Eskuliburua

Kalitatezko Praktiken Eskuliburuak kalitatearen kudeaketa-sistemen estiloko ikuspegi bat eskaintzen du. Kudeaketa-sistema bat honela defini daiteke: “politikak eta helburuak ezartzeko erakunde batean elkarri loturik eta elkarrekintzan diren elementuen sorta bat, eta helburu horiek lortzera bideratutako prozesuak ere” (ISO, 2015). Elementu horiei diziplina bakar batetik hel dakieke, adibidez, kalitatetik, kasu honetan bezala, edo diziplina askotatik aldi berean, adibidez, kalitatea eta ingurumena, edo kalitatea, ingurumena eta gizarte-erantzukizuna, besteak beste, erakundeak ikuspegi sistematiko batez kudeatu nahi dituen arloen arabera.

Kudeaketa-sistemek konplexutasun handiagoa edo txikiagoa izan dezakete, erakundearen testuinguruaren arabera. Erakunde jakin batzuentzat, adibidez, ETEentzat, horrek lidergo sendoagoa izateko premia ekarriko du bakarrik, enplegatu bakoitzarengandik espero daitekeenaren eta erakundearen helburu orokorretan laguntzeko duten eraren definizio argiago bat adieraziz, dokumentazio zabalaren beharrik gabe. Dena den, oso araututa dauden arloetan kokatutako operazio konplexuagoak, adibidez, hezkuntzaren testuinguruan, beharrezko izan ditzakete dokumentazio eta egiaztapen asko, erakundearen legezko betebeharrak eta haren helburuak betetzeari begira (ISO, datarik gabe).

Horretarako, kalitatea kudeatzeko sistema bat instrumentu boteretsua izan daiteke GLHBik eta ETEek lankidetzan eskaintako praktikak oinarritzeko. Eta Kalitatezko Praktiken Eskuliburua berez kudeaketa-sistema estandar bat ez den arren, horretarako abiapuntu gisa erabilia izateko garatu zen, eta etorkizunean GLHBle eta ETEek sistema horiek onartzea bultzatzen dezake. Eskuliburuak bi noranzko ditu: kanpotik barrura, praktikei buruzko prozesuak eta bi erakundeen komunikazioak antolatuz eta kontrolatuz; era horretan, enplegatuek

hobeto ulertzen dituzte beren eginkizunak, lan-jarduna hobetzen, eta eguneroko operazioak efizienteagoak egiten; barrutik kanpora, ikasleei eta eskaintako praktiken beste onuradunei kalitate-bermeak emanez eta, era horretan, alde guztientzako konfiantza eta aitortza eskainiz.

Kalitatezko Praktiken Eskuliburua zortzi prozesu erabakigarri kontrolatzeko premiaz diseinatu zen. Horietako bost prozesu GLHBletan dira, eta hiru, berriz, ETEetan, ondoren zehaztutakoak:

- GLHBI
- Oinarritzeko programako praktiketako helburuak zehaztu.
 - Praktika-aldiak identifikatu eta atzeman.
 - Akordioa negoziatu.
 - Praktikak ikuskatu.
 - Praktikak ebaluatu.

- ETE
- Praktiketako ikasleentzako postuak sortu.
 - Akordioa negoziatu.
 - Praktikak kudeatu.

- Kalitatezko Praktiken Eskuliburua honela osatzen da:
- Sarrera
 - Bi egiaztapen-zerrenda (bat GLHBientzat eta beste bat ETEentzat)
 - Frogak eta iradokitako ekintzak erregistratzeko koadroen adibideak
 - Glosarioa

Dokumentu horien konbinazioak, kudeaketa praktikorako eta erabilerrazetako tresna bat eskaintzen du GLHBI eta ETEentzat.

Praktika Eraginkorren eta Kalitatezkoen Europako Esparrurako Proposamenen Zerrenda

Praktika Eraginkor eta Kalitatezkoetarako Esparrurako proposamenak (Europako Batzorde, 2017) praktiketako Kalitatearen Berme prozesuak ezartzea eskatzen du. Gainera, zazpi irizpide ezartzen ditu kalitatezko praktikoetarako; ondorengoak:

- Idatzizko kontratu bat
- Praktiken emaitzak
- Lantokiaren osagaia
- Ordainsaria edo/eta ordaina
- Gizarte-segurantzza
- Lan-, osasun- eta segurtasun-baldintzak

Kalitatezko esparru definitu bat ezartzea bat letorke eta gainditu ere egingo lituzke zazpi irizpide horietan ezarritako betekizunak.

Kalitatezko Praktiken Eskuliburuaren helburuak

Kalitatezko Praktiken Eskuliburu kudeaketa-tresna malgu gisa diseinatu zen helburu desberdinetako askotariko egoeretan erabiltzeko:

- GLHBI eta ETEentzako jarraibidea etorkizunean praktiken kudeaketa-sistema baten oinarriak ezartzeko.
- GLHBI eta ETEentzako autoebaluaziorako egiaztapen-zerrenda, praktikak kudeatzeko duten prestasuna aldez aurretik eta era sistematiko batez diagnostikatzeko.
- GLHBI eta ETEentzako egiaztapen-zerrenda, praktikei lotutako prozesuen hobekuntza-guneak identifikatzeko.
- Adituen Berrikuspen ekimenak babesteko egiaztapen-zerrenda.
- Hirugarrenen (ziurtapen-erakunde baten) auditoretzetan laguntzeko egiaztapen-zerrenda.



Kalitatezko Praktiken Eskuliburu erabiltzeko moduak


Oso erraza da: Hasi Kalitatezko Praktiken Eskuliburua irakurtzen, prozesuak, irizpideak eta betekizunak ondo ulertu dituzula segurtatzeko. Gero, erabili zure erakundeak (GLHBI edo ETE) diseinatutako Praktiken Kalitate Zerrenda Praktiken Kalitaterako betekizunak zure egungo errealitatearekin kontratatzeko, eskainitako formularioen erabileraren bidez emaitzak erregistratuz, ondoren azaltzen dugun bezala:

- Ondorioztatzen baduzu betekizuna guztiz konplitzen dela, markatu emoji berdea; deskribatu eta zerrendatu "Froga Zerrenda"n betekizuna guztiz konplitzen dela baieztatzen du(t)en froga(k); eta adierazi froga-zenbakia(k) egiaztapen-zerrendako "Froga Zk." zutabean.
- Ondorioztatzen baduzu betekizuna zati batean konplitzen dela, markatu emoji horia; deskribatu eta zerrendatu "Froga Zerrenda"n betekizuna partzialki konplitzen dela erakusten duten froga objektiboak; adierazi froga-zenbakiak egiaztapen-zerrendako zutabean; deskribatu eta zerrendatu "Iradokitako Ekintzen Zerrendan" betekizuna guztiz aplikatzeko zure ustez egin beharko liratekeen ekintzak; adierazi iradokitako ekintzaren zenbakia "Iradokitako Ekintzak (Zk.)" zutabean.
- Ondorioztatzen baduzu betekizuna ez dela konplitzen, markatu emoji gorria; deskribatu eta zerrendatu "Iradokitako Ekintzen Zerrenda"n betekizun hori gauzatzeko egin beharko liratekeen ekintzak; adierazi iradokitako ekintzaren zenbakia egiaztapen-zerrendako "Iradokitako Ekintzak (Zk.)" zutabean.

Era horretan, zure egungo egoeraren ikuspegi bat lortuko duzu frogetan oinarrituta, eta hobekuntzak aplikatu ahal izango dituzu etengabe.

Izan dezazula Kalitatezko Praktiken Egiaztapen eder bat!

GLHBIentzako Praktiken Kalitaterako Egiaztapen Zerrenda



1

Oinarrizko programako praktiketako helburuak zehaztu



PROZESUA

1. Oinarrizko programako praktiketako helburuak zehaztu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Praktikei dagozkien alde interesatuen aurreikuspena zehaztu, eta aurreikuspen hori praktiken helburuetan gauzatu.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

1.1

Praktiketako Helburuen Diseinuan Alde Interesatuak duen Inplikazioa

1.1.1 Existitzen da adierazgarriak diren alde interesatuak eta haien beharrezko betekizunak identifikatzeko prozedura bat, ondorengoak zehaztuz:

a) kontsulta-metodoa?

/

X

NA

b) kontsulten maiztasuna?

1,2,3

X

/

c) nola gorde kontsulten erregistroak?

1,2,3

X

2

1.1.2 Existitzen da prozedura bat kontsulta horien ondorioz egindako ekintzak dokumentatzeko?

1.2

SMART Praktiketako Helburuen Definizioa

1.2.1 Existitzen da prozedura dokumentatu bat praktiketarako Praktiketako Helburuen Diseinuari buruz, ondorengoak zehaztuz:

a) praktiketako helburuak ezagutza, gaitasun, erantzukizun eta autonomiari erreparatuz deskribatzen direla?

b) praktiketako helburuak espezifikoki ebaluatuta daudela?



PROZESUA
1. Oinarrizko programako
praktiketako helburuak zehaztu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Praktikei dagozkien alde interesatuen aurreikuspena zehaztu,
eta aurreikuspen hori praktiken helburuetan gauzatu.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]






1.3

Transferentzia

1.3.1 Argitaratuta daude
ondorengo prozedurak?

a) Existitzen da adierazgarriak
diren alde interesatuak eta
beharrezko betekizunak
identifikatzeko prozedura bat,
ondorengoak zehaztuz:

b) Praktiketako helburuak eta
praktiketako programa
ebaluatzeko irizpideak?



2

Praktika-aldiak
identifikatu eta
atzeman



PROZESUA

2. Praktika-aldiak identifikatu eta atzeman

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

GLHBI baten barruan praktika-aldiak hornitzearen kudeaketa, segurtatuz aldi berean praktika-aldietarako postuen aukeraketa, horretarako erabiliz aurrez ezarritako betekizunetan oinarritutako ikuspegi sistematiko eta garden bat, eta mota horretako praktiken eskaintza hazteko prozesuak.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

2.1

Praktika Aldietarako Arauen Definizioa

2.1.1 Institutuak badu irizpide multzo dokumentaturik praktiketarako, ondorengoak definituz:

a) praktiketako helburuak?

b) enplegu-baldintzak?

c) tutoretza edo/eta ikuskapenerako baldintzak?

d) praktiketako ikasleentzako lan-fluxu bat, ondorengoak kontuan hartuz:

d.1) kronogramak?

d.2) ardurak?

d.3) txosten-betekizunak?

2.2

Praktika-aldi-
etarako
Postuak
identifikatu
[atzeman] eta
atzeman.

2.2.1 Izendatu da praktika-aldien koordinatzaile bat institutuan?

2.2.2 Existitzen da praktika-aldietarako Marketin eta/edo Sustapen Estrategiarik?



PROZESUA

2. Praktika-aldiak identifikatu eta atzeman

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

GLHBI baten barruan praktika-aldiak hornitzearen kudeaketa, segurtatuz aldi berean praktika-aldietarako postuen aukeraketa, horretarako erabiliz aurrez ezarritako betekizunetan oinarritutako ikuspegi sistematiko eta garden bat, eta mota horretako praktiken eskaintza hazteko prozesuak.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

2.2

Praktika-aldi-
etarako
Postuak
identifikatu
[atzeman] eta
atzeman.

2.2.3 Sartzen da estrategia horretan horniketarik ondorengoetarako:

a) pertsonak (langileak) dinamizatzeko?

b) ikasleak dinamizatzeko?

c) enplegatzailearen ordezkariak dinamizatzeko?

d) enplegatzaileak atzemateko?

2.3


ETEetarako
Trebakuntzaren
Garapena

2.3.1 Argitaratzen du GLHBIk Interneten aurkezteko informaziorik praktikei buruz?

2.3.2 Sartzen ditu informazio orokorrean Maiz Egindako Galderak edo ezagutza-base bat?

2.3.3 Egiten ditu GLHBIak ETEak atzemateko edo/eta haiei informazioa emateko ekitaldirik?

2.3.4 Eskaintzen ditu GLHBIak trebakuntza-bitartekoak ETEentzat?





PROZESUA 3. Akordioa negoziatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA
Alde guztiek onurak aterako dituzten praktikak ezartzen dituzten akordioen dokumentazioa.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILLOIA
[Zk.]



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

3.1

Akordio-
zirriborroaren
erredakzioa

3.1.1 Existitzen da prozedura dokumentatu bat kontratua betetzeko lan-fluxuaren kudeaketa deskribatzen duena, ondorengoak kontuan hartuz:

a) sinatzearen kronogramak?

b) sinatzaileek, adibidez, ikasleek, GLHblek eta ETEek, zirriborroak erredaktatzeko prozesuan hartutako rol zehatzak?

3.1.2 Existitzen da praktiketarako kontratu-eredu bat, ondorengoak deskribatuko dituena?

a) iraupena?

b) programako helburuak?

c) praktiketako jarduerak?

d) enpleguaren baldintzak?

Deskribatzen dituzte baldintzek:

d.1) ETEaren barruan praktiketako ikasleek betetako postua?

d.2) ordainsari bat?



PROZESUA 3. Akordioa negoziatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA
Alde guztiek onurak aterako dituzten praktikak ezartzen dituzten akordioen dokumentazioa.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILLOIA
[Zk.]



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

3.1

Akordio-
zirriborroaren
erredakzioa

d.3) lanpostuko lan-osasun eta segurtasunerako preskripzioak?

d.4) lan-orduak?

d.5) gizarte-babesa, adibidez, estatuko legediarekin bat datorren aseguru bat?

e) ikuskatzaileen edo/eta tutoreen identifikazioa, kontuan hartuz: haren eginkizunak eta ardurak?

f) eginkizun eta ardura horien deskribapena?


g) ikasleen ardura?

h) txostena egiteko ikasleentzako betekizunak?

g) komunikatzeko moduak?

h) ebaluatze metodoak?

i) kontrol-neurriak?





PROZESUA 4. Praktikak ikuskatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Fase desberdinetako praktiken kontrola, aldi berean laguntza emanez inplikaturako alde guztiei eta bermatuz edozein desbiderapen detektatu egiten dela, eta zuzendu, emaitzak planifikatu bezala lortzeko.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILLOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

4.1

ETEn
Jardueren
Ikusapena

4.1.1 Badu GLHBlak ikuskatzaile bat izendatuta praktika bakoitzerako?

4.1.2 Existitzen da komunika-
zio-protokolo bat ETEekin?
Kontuan hartzen d(it)u
protokolo horrek:

a) korrespondentzia?

b) bisitak?

4.1.3 Existitzen da prozedura dokumentatu bat bisita bat egiteko moduz, tartean sartuz:

a) plangintzaren betekizunak (komunikazioen igorlea, modua eta hartzailea)

b) frogak biltzea (bitartekoak eta tresnak)?

c) bisita erregistratu eta jakinaraztea?



PROZESUA 4. Praktikak ikuskatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Fase desberdinetako praktiken kontrola, aldi berean laguntza emanez inplikaturako alde guztiei eta bermatuz edozein desbiderapen detektatu egiten dela, eta zuzendu, emaitzak planifikatu bezala lortzeko.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILLOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

4.2

Ikasleen
Jardueren
Ikusapena

4.2.1 Existitzen da ikasleekin komunikatzeko protokolo bat korrespondentzia- eta bisita-uneak ezartzen dituen?

4.2.2. Existitzen da ikasleentzako prozedura bat haiek praktiken bilakaeraren berri eman dezaten, ondorengoak zehaztuz:

a) jakinarazi behar den informazioa (zer)?

b) jakinarazteko maiztasuna (noiz)?

c) jakinarazteko metodoa (nola)?

d) informazio-kanala (nori)?

4.3

Erabiltzailearentzako Laguntza eta Arazoen Konponketa

4.3.1 Ezarri du GLHBlak laguntza-zerbitzu bat?

4.3.2 Existitzen da prozedura dokumentatu bat GLHBlaren laguntza-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, adibidez, deitu ahal izateko zenbakia, helbide elektronikoa edo webgunea?

4.3.3 Sustatzen du GLHBlak laguntza-zerbitzu hori egotea?



PROZESUA
4. Praktika
ikuskatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA
Fase desberdinetako praktiken kontrola, aldi berean laguntza emanez inplikaturako alde guztiei eta bermatuz edozein desbiderapen detektatu egiten dela, eta zuzendu, emaitzak planifikatu bezala lortzeko.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILLOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

4.3

Erabiltzailearent
zako Laguntza
eta Arazoen
Konponketa

4.3.4 Existitzen da arazoak konpontzeko prozedura dokumentatu bat?

a) Kontuan hartzen ditu prozedura horrek egoera kritiko urgenteei aurre egiteko zehaztapenak?

4.4

Praktika
ebalatu

4.4.1 Existitzen da prozedura dokumentatu bat GLHBI-arentzat ETEak eta haren tutoreak ebaluatzeari buruz?

Kontuan hartzen d(it)u prozedura horrek

a) ikasleen iritziak biltzeko moduari buruzko zehaztapenak?

b) ETEen iritziak biltzeko moduari buruzko zehaztapenak?

c) zein galdetegi erabiliko duen?

d) zein azterketa-metodologia erabiliko den?

e) zuzenketa eta/edo hobekuntzarako ekintza potentzialak erregistratu eta haiei buruz informatzeko modua?

f) ebaluazioaren gardentasuna nola bermatu?

5

Praktika
ebalatu



PROZESUA 5. Praktikak ebalatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA
Praktiketako ikasleek eskuratutako gaitasunen balorazio,
kalifikazio eta ziurtapen sistematiko eta gardena.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

5.1

Balorazioaren
Diseinua

5.1.1 Ezarri du GLHBlak
txantilo bat ikasleek bete
beharreko ebaluazio-
txostenerako?

5.1.2 Ezarri du GLHBlak
txantilo bat ETEek bete
beharreko bilakaerari buruzko
ebaluazio-txostenerako?

5.1.3 Ezarri du GLHBik
ebaluaziorako araurik?

5.1.4 Argitaratuta daude
arau horiek?

5.2

Ebaluazioaren
Gauzapena eta
Ikusapena

5.2.1 Ematen dizkie Lanbide
Heziketako Institutuak
jarraibideak ETEei ebaluazioak
egiteko moduz?

5.2.2 Existitzen da prozedura
dokumentatu bat ebaluazioko
datuak biltzeko, tartean direla
ardurak eta kronogramak?

5.2.3 Existitzen da prozedura
dokumentatu bat datuen
segurtasunari buruz, tartean
direla dokumentuen
trazabilitaterako betekizunak,
manipulazioaren kontrakoak,
eta pribatutasunerako?

5.3.1 Ezarri du GLHBlak
kalifikazio-sistema bat,
kontuan hartuz:

a) kalifikazioen zerrenda bat?



PROZESUA 5. Praktikak ebalatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA
Praktiketako ikasleek eskuratutako gaitasunen balorazio,
kalifikazio eta ziurtapen sistematiko eta gardena.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

5.3

Kalifikazioa
(notak jarri)

b) kalifikazioen
deskribapen bat?

c) kalifikazioak
erabakitzeko
prozedura bat?

d) emandako kalifikazioak
(notak) erregistratzeko
txantilo bat?

5.4

Ziurtapena

5.4.1 Badu GLHBlak prozedura
dokumentatu bat kreditua
emateko, bertan zehaztuz:

a) baliozkotu daitekeen
kreditua esleitzeko metodoa?

b) erabilera ziurtatzeko
eredu bat?

c) ziurtagiriaren gehigarria den
edozein informaziorako eredu
bat (tituluaren osagarria,
Europass, etab.)?

d) esleitutako ziurtagirien
erregistroak gordetzeko
metodo bat?

e) ziurtagiriak egiaztatzeko
eskaerei erantzuteko
metodo bat?



PROZESUA 5. Praktika ebalatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA
Praktiketako ikasleek eskuratutako gaitasunen balorazio,
kalifikazio eta ziurtapen sistematiko eta gardena.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILLOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

5.5

Kexuak eta
Eskaerak

5.5.1 Badu GLHBlak kexu eta eskaeren sistema jakin bat, bertan sartuz:

a) kexu edo eskaera bat nori helarazi zehazteko metodo dokumentatuak?

b) kexuak eta eskaerak bidaltzeko txantiloak?

c.1) kexu eta eskaeren eremua definitzen dituzten prozedura dokumentatuak?


c.2) GLHBlari eragiten dioten kexu eta eskaeren ikerketa?

c.3) ETEei eragiten dieten kexu eta eskaeren ikerketa?

c.4) kexu/eskaeren ebazpena?

d) kexu eta eskaerei buruz haien egileei iritzi bat adierazteko balio duen kronogramaren inguruko informazioa?

ETEentzako Praktiken Kalitaterako Egiaztapen Zerrenda



1

Praktiketako ikasleentzako postuak sortu



PROZESUA

1. Praktiketako ikasleentzako postuak sortu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Presta zaitez praktiketako ikasleak era planifikatu eta kontrolatu batean hartzeko, kontuan hartuz arriskuen kudeaketa, baina aldi berean inbertsioaren itzulkin (erretornu) handiena segurtatuz.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILDIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

1.1

Praktiketarako Prestaketa

1.1.1 Sistematizatu du ETEak praktiketako postuak enpresako egituraren sartzea (adib., organigrama baten, zereginaren deskribapenaren edo antzeko baten bidez)?

1.1.2 Badu ETEak plan finantzario edo/eta esleipen bat praktiketarako?

Badu plan finantzarioak baliabideen esleipen berezirik:

a) tutoreentzat?

b) praktiketako ikasleentzat, ondorengoak sartuz:

b.1) soldatak?

b.2) Gizarte Segurantzako prestazioak, tartean sartuz aseguru,

c) osasun eta segurtasunerako azpiegitura?

1.1.3 Eskaintzen du ETEak kontratu-eredu bat lan-baldintzak definitzeko?



PROZESUA

1. Praktiketako ikasleentzako postuak sortu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Presta zaitez praktiketako ikasleak era planifikatu eta kontrolatu batean hartzeko, kontuan hartuz arriskuen kudeaketa, baina aldi berean inbertsioaren itzulkin (erretornu) handiena segurtatuz.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

1.1

Praktiketarako Prestaketa

1.1.4 Badu ETEak arriskuen kudeaketa-plan bat, bertan sartuz:

a) arriskuen identifikazioa?

b) ondorioen seriotasunaren azterketa bat?

c) gertatzeko probabilitatearen azterketa bat?

d) arrisku horiek eragozteko neurrien proposamen bat?

1.2

Tutoreen Identifikazioa

1.2.1 Badu ETEak prozedura dokumentatu bat tutoreak aukeratzeko, bertan sartuz betekizunen deskribapen bat ondorengo gaietan:

a) gaitasun teknikoak?

b) tutoretza pedagogikoari buruzko gaitasunak?

c) gutxienezko lan-eskarmentua?

1.2.2 Badu ETEak tutoreak trebatzeko prozedura bat?

2

Akordioa negoziatu



PROZESUA 2. Akordioa negoziatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Segurtatu ETEak behar bezala parte har dezakeela inplikaturako alde guztien onura dakarten praktikei buruzko akordioak egiten.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA
[Zk.]



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

2.1

Akordio-zirribor-
roaren
erredakzioa






2.1.1 Definitu du ETEak kontraturako lan-fluxu bat fase bakoitzean nork zein dokumentu landu, berrikusi eta onartuko duen zehazten duena?



2.2

Praktika-aldiak
eta ikasleak
uztartzen






2.2.1 Ezarri du ETEak prozedura dokumentatu bat praktika-aldia eta haren ikasleentzako eta GLHBientzako baldintzak deskribatzeko?



2.2.2 Ezarri du ETEak prozedura bat aukeratutako ikasleei praktika-aldiak aurkezteko?



2.2.3 Badu ETEak prozedura bat praktiketako ikasleak aukeratzeko?



3

Praktikak kudeatu



PROZESUA 3. Praktikak kudeatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Fase desberdinetako praktiken kontrola, aldi berean segurtatuz edozein desbiderapen detektatu egiten dela, eta zuzendua, emaitzak planifikatu bezala lortzeko.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

3.1

Kudeaketa

3.1.1 Badu ETEak praktikei buruz GLHBIarekin komunikatzeko ardura bere pertsonaren bati esleituta?

3.2

Sarrera

3.2.1 Badu ETEak prozeduraren bat praktiketako ikasle bakoitzari ETEa aurkezteko?

3.2.2 Badu ETEak prozeduraren bat praktiketako ikasle bakoitza pertsonari (langileei) aurkezteko?

3.2.3 Badu ETEak prozeduraren bat dokumentatuta tutoretzarako, bertan zehaztuz:

a) irakasle-saioak, trebakuntza edo/eta tutoreak egindako erakustaldiak?

b) aldizkako iritziak eta ebaluazio-jarduerak?

c) berrikuspenerako bilkura formalak, parte-hartzaileak eta kronograma?



PROZESUA 3. Praktikak kudeatu

PROZESUAREN APLIKAZIO-EREMUA

Fase desberdinetako praktiken kontrola, aldi berean segurtatuz edozein desbiderapen detektatu egiten dela, eta zuzendua, emaitzak planifikatu bezala lortzeko.



IRIZPIDEAK



BETEKIZUNAK



FROGA
[Zk.]



EBALUAZIO TXANTILOIA



IRADOKITAKO EKINTZAK
[Zk.]

3.3

Tutoretza

3.3.1 Definitu du ETEak planen bat praktiketako aldi bakoitzera-ko, bertan sartuz:

a) praktika-aldiaren helburu orokor bat?

b) emaitza argi batzuk dituen zeregin zehatzen multzo bat helburu hori lortzeko?

3.3.2 Badu ETEak prozeduraren bat dokumentatuta barneko (langileen) kexuak eta iradokizunak tratatzeko?

3.3.3 Badu ETEak prozeduraren bat dokumentatuta kanpoko (GLHBI, praktiketako ikasleak) kexuak eta iradokizunak tratatzeko?

3.4

Ebaluazioa

3.4.1 Badu ETEak prozeduraren bat dokumentatuta praktiketako programa osoa nola joan den ikuskatzeko (tartean direla aurreko pauso guztiak)?

Erregistroak gordetzeko taulen adibideak

FROGA OBJEKTIBOEN ZERRENDAK

Zk.	Froga objektiboaren deskribapena
1	<i>"Alde interesatuen identifikaziorako" prozedura, 2. bertsioa 20171008tik.</i>
2	<i>2013ko alde interesatuei egindako kontsultei buruzko seihileko txosten sorta, F 10-A formulario erabiliz.</i>
3	<i>2015eko alde interesatuei egindako kontsulten laburpena, Urteko Kudeaketa Txosteneko 5. puntuan adierazia.</i>

IRADOKITAKO EKINTZEN ZERRENDA

Zk.	Iradokitako ekintzen deskribapena
1	<i>"Alde interesatuen identifikazioa" prozedura berrikusi, 20171008ko 2. bertsioa, eta gehitu egingo diren kontsulten alde aurreko maiztasun bat.</i>
2	<i>"Alde interesatuen identifikazioa" prozedura, 20171008ko 2. bertsioa, berrikusi, eta gehitu akta bat alde interesatuei egindako kontsulten txostenaren formatua estandarizatzeko, eduki-elementuen gutxienezko kopuru bat segurtatzen duten eremuen bitartez. Gehitu, halaber, txostenak bidaliko zaizkion hartzailearen aurredefinizioak eta non artxibatuko diren.</i>

Oharra: Taula hauek adibide bat besterik ez dira. "Frogak" eta "Iradokitako Ekintzak" zerrenda osoak eta garbiak leartowork webgunetik jaitsi daitezke, hemen: <http://leartowork.eu>

Glosarioa

HITZA	DEFINIZIOA
Praktikak	Lantokia eta ikastetxea edo trebakuntza-zentroa txandakatzen dituen trebakuntza, irakaskuntzan edo heziketa arautuan kokatuta; hura behar bezala amaitzean, ikasleak gaitasunak hartzen ditu, eta ofizialki onartutako ziurtagiri bat [CEDEFOPetik egokitua].
Froga	Zerbait existitzen dela edo egiazkoa dela babesten duten datuak [ISO9000:2015etik egokitua].
Laguntza Zerbitzua	Erabiltzaileei arazoak konpontzen laguntzen dien denetarako zerbitzugune bat.
Arazoa	Ekintza bat eskatzen duen egoera bat.
Kudeaketa Sistema	Kudeaketa-sistema bat honela defini daiteke: "Politikak eta helburuak ezartzeko erakunde batean elkarri loturik eta elkarrekintzan diren elementuen sorta bat, eta helburu horiek lortzera bideratutako prozesuak ere" [ISO9000:2015etik egokitua].
Datu pertsonalak	Pertsona bati buruzko informazioa, identifikazio-zenbaki baten erreferentziaz edo haren gorputz-, fisiologia-, buru-, ekonomia-, kultura- edo gizarte-identitateko faktore jakin baten edo batzuen bidez identifika daitekeena [95/46/CE Zuzentarautik egokitua].
Prozesua	Elkarri lotzen diren edo elkarrekintzan diren jardueren sorta, bilatutako emaitza lortzeko ekarpenak erabiltzen dituen [ISO9000:2015etik egokitua].
Goi-mailako Lanbide Heziketa	Goi-mailako trebakuntza mota, lan-munduarekin integrazio bereziki estua eskaintzen duena, alderdi guztietatik [tartean direla irakaskuntza, trebakuntza, ikerketa eta gobernantza] eta Goi-mailako Trebakuntzako Europako Eremuko Kualifikazioen Esparruko maila guztietan.
Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu	Goi-mailako Lanbide Heziketa eskaintzen duen institutu edo ikastetxea.
Kalitate	Objektu baten berezko ezaugarrien sorta batek betekizunak konplitzen dituen maila [ISO9000:2015etik egokituta].
Betekizun	Adierazia, oro har inplizitua edo nahitaezkoa den beharra edo aurreikuspena [ISO9000:2015etik egokitua].
ETE	250 pertsona edo gutxiago enplegatzen dituzten enpresak, urteko gehienez 50 milioi euroko fakturazioa dutenak, eta urteko guztizko balantzea, berriz, 43 milioi eurokoa gehienez [Europako Batzordea, 2003].
Alde interesatua	Erakunde baten helburuak betetzearen eraginpean den edo horiek betetzen eragiten duen edozein talde edo norbanako [Freeman, 2010].
Lan-fluxu	Prozesu baten gauzatutako operazio edo ekintzen sekuentzia errealearen irudikapena [ISO18308:2011tik egokitua].

Erreferentziak

Iturria:

- Camilleri, A., Delplace, S., EURASHE, Frankowicz, M., & Hudak, R. (2013). *Profile of Professional Higher Education in Europe*. EURASHE: Brussels. Retrieved from <http://www.knowledgeinnovation.eu/wp-content/uploads/2015/09/PHE-in-Europe.pdf>
- CEDEFOP (2011). *Glossary- Quality in Education and Training*. Publications Office of the European Union – CEDEFOP: Luxembourg. Retrieved from: http://www.cedefop.europa.eu/EN/Files/4106_en.pdf
- European Commission (2017). Proposal for a COUNCIL RECOMMENDATION on a European Framework for Quality and Effective Apprenticeships {SWD(2017) 322 final}. European Commission: Brussels. Retrieved from: <http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=18330&langId=en>
- European Commission (2003). *Commission Recommendation of 6 May 2003 concerning the definition of micro, small and medium-sized enterprises*. European Commission: Brussels. Retrieved from: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2003:124:0036:0041:en:PDF>
- European Commission. (1995). *Directive 95/46/EC of the European Parliament and of the Council of 24 October 1995 on the protection of individuals with regard to the processing of personal data and on the free movement of such data*. European Commission: Brussels. Retrieved from: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/PDF/?uri=CELEX:31995L0046&from=EN>
- Freeman, R. (2010). *Strategic management: A stakeholder approach*. Cambridge university press: Cambrigde.
- International Organization for Standardization (2015). *ISO 9000:2015 Quality management systems – fundamentals and vocabulary*. ISO: Geneva.
- International Organization for Standardization (2011). *ISO 18308:2011 Health informatics — Requirements for an electronic health record architecture*. ISO: Geneva.
- International Organization for Standardization (no date). *Management system standards – What is a management system?* ISO: Geneva. Retrieved from: <https://www.iso.org/management-system-standards.html>

